

OHIKO OSOKO BILKURA 02/12

UDALAK 2012ko URTARRILAREN 31EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Joser Pérez Dominguez jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Solé jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

2012ko urtarrilaren 31n ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bileran Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTU HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2011-10-20. - Alkate-lehendakari jaunak jakinarazi du onartzeko aurkeztutako akta 2011ko urriaren 26koa dela, ez urriaren 20koa, aztergaien zerrendan horrela datorren arren, data oker jarrita baitzegoen. Gogorarazten du aktan 2012ko Ordenantza Fiskalen puntua zuzendu beharra dagoela, Ogasun eta Ondare Batzordeak-Kontuetaarako Batzorde Bereziak emandako irizpenaren arabera.

Chica jaunak (Euskal Sozialistak) abstenitu egingo direla esan du, oraintxe jakin baitute onartzekoa zen akta urriaren 26koa zela, eta ez dutela irakurri.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) ere Chica jaunak esandako gauza bera esan du.

Idazkariak esan du bere errua izan zela.

Alkate-lehendakariak gaia mahai gainean utzi du.

2.- 2011KO ABENDUAREN 22TIK 2012KO URTARRILAREN 27RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko abenduaren 22tik 2012ko urtarrilaren 27ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 16/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN HABILITAZIOA BIDEZKOA). - Alkatetzak 2011ko abenduaren 20an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **16/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren kredituen habilitazio bidezkoa. Kopurua: **137.067,17 euro**.

4.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 18/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITU GEHIGARRI BIDEZKOA). Hernaniko Udal Aurrekontuko kredituen aldaketarako **18/2011** espedientearen (kreditu gehigarrien bidezkoa) berri eman da. Espediente hori Alkatetzak 2011ko abenduaren 21ean hartutako ebazpen bidez onartu zen eta **350.143** eurokoa da.

5.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 19/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDEINTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN HABILITAZIOA BIDEZKOA). - Alkatetzak 2011ko abenduaren 27an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **19/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren kredituen habilitazio bidezkoa. Kopurua: **88.524,74 euro**.

6.- TXANTXILLAKO ETXEBIZITZA HITZARTUEI BURUZ EMANDAKO HAINBAT DEKRETU BERRESTEA. - Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko urtarrilaren 16ean emandako irizpena.

Chica jaunak esan du (Euskal Sozialistak) irizpenean jasota datorren lehenengo dekretuan datak ez datozela ondo. Ez daki korrika eta presaka egitearen ondoriozko akatsa ote den ala zergatik den.

Alkate-lehendakariak esan du akatsa izango dela, Dekretua diktamenera pasatzerakoan egindako akatsa ere izan daitekeela, zeren eta espedientea Hirigintzako letratuak prestatu zuen eta notarioarekin izapidetu zen, beharrezkoa baitzen erabaki horiek hartzea etxebizitzak eskrituratu ahal izateko. Gero esan du irizpena bozkatuko dutela, datetan egin beharreko aldaketak eginda, hala badagokio.

Chica jaunak (Euskal Sozialistak) jasoarazi du kontrako botoa emango dutela bere garaian ere, esleipendunen zerrenda onartu zenean, alegia, kontrako botoa eman zutelako.

Alkate-lehendakariak Hirigintza eta Ingurumen Batzordearen irizpenaren bozketa egin du Chica jaunak esandako dekretuan akatsak zuzenduta, hala badagokio:

Aldeko botoak: 9 (Bildu).

Kontrako botoak: 4 (3 Euskal Sozialistak, 1 H1!).

Abstentzioak: 2 (EAJ/PNV).

Beraz, emandako botoak ikusita, erabaki hau hartu da:

- Aipatutako irizpenean sartuta dauden 5 dekretuak berrestea, baina 1 zenbakia daukanean zuzenketa hau eginda etxebizitza Nerea Sanchiz Arregi eta Martin Arnes Arteagari esleitzeari dagokionez:

“Azalpen zatiaren 2. idatz zatian, “2009ko uztailaren 20” dioen lekuan, “2009ko uztailaren 24” esan behar du.

1º.- “DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako abenduaren hogeian.

Hernaniko Udalak 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran LH 5.1 areako (Txantxilla) etxebizitza hitzartuen esleipendunen zerrenda onartu zuen. Horien artean Nahiara Sanchiz Arregui zegoen.

2009ko uztailaren 20an UTE Txantxillak Nahiara Sanchiz Arreguik etxebizitza horri uko egiten ziola adierazten zuen agiria aurkeztu zuen Hernaniko Udalean. Bide batez proposatzen zen etxebizitza hori NEREA SANCHIZ ARREGUIri (NAN: 72.485.649E) eta ANDONI MARTIN ARNES ARTEAGari (NAN: 72.483.707N) esleitzea.

Udalbatzak 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran Nahiara Sanchiz Arreguiren uko egitea onartu zen baina, UTE Txantxillak proposatutako bizikidetzaren unitatearen kide guztiek aipatutako etxebizitzetako baten esleipendun izateko bete beharreko baldintza guztiak betetzen zituztela jasota eta egiaztatua egon arren, 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkura horretan ez zen NEREA SANCHIZ ARREGUI eta ANDONI MARTIN ARNES ARTEAGaren aldeko esleipenik egin.

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT**:

1.- Egin gabe geratu zen esleipen hori egitea, hots, Txantxillako (LH-5.1) etxebizitza hitzartu bat NEREA SANCHIZ ARREGUIri eta ANDONI MARTIN ARNES ARTEAGari esleitzea.

2.- Hurrengo osoko bilkuran akatsa zuzen dadila proposatuko zaio udalbatzari.

2º.- DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako abenduaren hogeian.

Hernaniko Udalak 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran LH 5.1 areako (Txantxilla) etxebizitza hitzartuen esleipendunen zerrenda onartu zuen.

Zerrenda horretan OSCAR ESTEBAN GARCIA agertzen zen etxebizitza bateko esleipendun gisa (NAN: 72.488.557D).

Hala ere egiaztatu ahal izan da etxebizitzaren esleipen eskaera OSCAR ESTEBAN GARCIA eta AINHOA MONTENEGRO ARRONDoren (NAN: 72.484.051B.) izenean egin zela.

Bizikidetzaren unitatearen kide guztiek aipatutako etxebizitzetako baten esleipendun izateko bete beharreko baldintza guztiak betetzen zituztela jasota eta egiaztatua egon arren, 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkura horretan ez zen AINHOA MONTENEGRO ARRONDoren izena sartu OSCAR ESTEBAN GARCIAren izenaren ondoan.

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT**:

- 1.- Jaso gabe geratu zen izen jasotzea eta Txantxillako (LH-5.1) etxebizitza hitzartu bat OSCAR ESTEBAN GARCIA eta AINHOA MONTENEGRO ARRONDori esleitzea onartzea.
- 2.- Hurrengo osoko bilkuran akatsa zuzen dadila proposatuko zaio udalbatzari.

3º.- DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako abenduaren hogeian.

Hernaniko Udalak 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran LH 5.1 areako (Txantxilla) etxebizitza hitzartuen esleipendunen zerrenda onartu zuen.

Zerrenda horretan MAITE APAOLAZA ARAMENDI agertzen zen etxebizitza bateko esleipendun gisa (NAN: 44.168.146G).

Hala ere egiaztatu ahal izan da etxebizitzaren esleipen eskaera MAITE APAOLAZA ARAMENDI eta IOKIN ETXEBERRIA ALBERRoren (NAN: 44.168.146G.) izenean egin zela.

Bizikidetzaren unitatearen kide guztiek aipatutako etxebizitzetako baten esleipendun izateko bete beharreko baldintza guztiak betetzen zituztela jasota eta egiaztatua egon arren, 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkura horretan ez zen IOKIN ETXEBERRIA ALBERRoren izena sartu MAITE APAOLAZA ARAMENDIren izenaren ondoan.

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT**:

- 1.- Jaso gabe geratu zen izen jasotzea eta Txantxillako (LH-5.1) etxebizitza hitzartu bat MAITE APAOLAZA ARAMENDI eta IOKIN ETXEBERRIA ALBERRori esleitzea onartzea.
- 2.- Hurrengo osoko bilkuran akatsa zuzen dadila proposatuko zaio udalbatzari.

4º.- DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako abenduaren hogeian.

Hernaniko Udalak 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran LH 5.1 areako (Txantxilla) etxebizitza hitzartuen esleipendunen zerrenda onartu zuen.

Zerrenda horretan IÑAKI BARRENECHEA LERCHUNDI agertzen zen etxebizitza bateko esleipendun gisa (NAN: 44.153.957Y).

Hala ere egiaztatu ahal izan da etxebizitzaren esleipen eskaera IÑAKI BARRENECHEA LERCHUNDI eta BEATRIZ IRASTORZA OTEGUIren (NAN: 44.147.804V.) izenean egin zela.

Bizikidetzaren unitatearen kide guztiak aipatutako etxebizitzetako baten esleipendun izateko bete beharreko baldintza guztiak betetzen zizutela jasota eta egiaztatua egon arren, 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkura horretan ez zen BEATRIZ IRASTORZA OTEGUIren izena sartu IÑAKI BARRENECHEA LERCHUNDIren izenaren ondoan.

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT:**

- 1.- Jaso gabe geratu zen izen jasotzea eta Txantxillako (LH-5.1) etxebizitza hitzartu bat IÑAKI BARRENECHEA LERCHUNDI eta BEATRIZ IRASTORZA OTEGUIri esleitzea onartzea.
- 2.- Hurrengo osoko bilkuran akatsa zuzen dadila proposatuko zaio udalbatzari.

5º.- DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako abenduaren hogeian.

Hernaniko Udalak 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran LH 5.1 areako (Txantxilla) etxebizitza hitzartuen esleipendunen zerrenda onartu zuen.

Zerrenda horretan ASIER GARAYAR HOLGADO agertzen zen etxebizitza bateko esleipendun gisa (NAN: 72.481.346C).

Hala ere egiaztatu ahal izan da etxebizitzaren esleipen eskaera ASIER GARAYAR HOLGADO eta MAIALEN MURGUIONDO JAUREGUIren (NAN: 72.505.010V.) izenean egin zela.

Bizikidetzaren unitatearen kide guztiak aipatutako etxebizitzetako baten esleipendun izateko bete beharreko baldintza guztiak betetzen zizutela jasota eta egiaztatua egon arren, 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkura horretan ez zen MAIALEN MURGUIONDO JAUREGUIren izena sartu ASIER GARAYAR HOLGADOren izenaren ondoan.

Eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT:**

- 1.- Jaso gabe geratu zen izen jasotzea eta Txantxillako (LH-5.1) etxebizitza hitzartu bat ASIER GARAYAR HOLGADO eta MAIALEN MURGUIONDO JAUREGUIri esleitzea onartzea.

2.- Hurrengo osoko bilkuran akatsa zuzen dadila proposatuko zaio udalbatzari.

7.- HERNANIKO UDALARI GALARRETAKO 10.5 SEKTOREAN ESLEITUTAKO ERAIKIGARRITASUNAREN %15 ORONA FUNDAZIOARI LAGATZEA. - Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean jasota datorren legezko izapidetzea egin ondoren, 2009ko abenduaren 21ean Galarretako 10.5 sektorearen garapenerako Hirigintza Hitzarmena izenpetu zen. Hitzarmen horren bidez, besteak beste, Udalak planeamendu orokorrean Galarreta eremuari dagokionez aldaketa bat egiteko konpromisoa hartu zuen, eta Donostiako Parke Teknologikoa SA entitateak eremu hori garatu eta exekutatzeko konpromisoa hartu zuen, parke teknologikoko modalitatean jarduera ekonomikoetarako erabiltzeko helburuz. Horrez gain, entitate horrek mintzagai dugun sektorean lurzoru erreserba bat egiteko ardura ere hartu zuen espresuki bere gain, Orona Kooperatibak bere fundazioaren bitartez sustatzen zuen jarduera berritzaileen sustapen gune bat jartzeko.

Hitzarmen horretan Udalak konpromiso hau hartu zuen: doan lagako zuela LHI-10.5 sektore osoa sartuta egongo den exekuzio unitateari esleitutako hirigintza-eraikigarritasun haztatuaren %15a gauzatzen den lur zatiaren edo lur zatien jabetza. Lursail horiek lehentasunez zertarako erabili beharko ziren ere ezarri zen: ikerketa eta unibertsitate zentroak, teknologia berriak sustatzeko zentroak eta enpresa-jardueretako zentroak edo antzekoak sortzeko, entitate publikoek nahiz irabazteko asmorik gabeko entitate pribatuak sustaturikoak; eta hitzarmenean aurreikusten zen lagapenaren onuraduna Fundazio bat izango zela, artean eratu gabe zegoena.

Onartu beharreko planeamenduko dokumentuak onartu dira, eta kudeaketa prozesua bukatu da, izan ere joan den abenduaren 2an Tokiko Gobernu Batzarrak Birzatatze Egitasmoa behin betiko onartu baitzuen. Egitasmo horretan Hernaniko Udalari 1.2 lursaila esleitzen zaio, eraikigarritasunaren %15aren lagapen gisa, hirigintza zametatik libre, dauzkan karga bakarrak eremuaren eraikuntza eta urbanizazioak eskatzen dituen bere aldeko eta kontrako zortasunen ondoriozkoak izanik.

Fundación Orona-Orona Fundazioa 2010eko irailaren 29an Donostiako notario Fermín Lizarazu jaunaren aurrean emandako eskritura bidez eratu zen (144 protokolo zk.) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen erregistroan Justizia eta Herri Administrazio sailburuak 2010eko abenduaren 13an emandako Agindu bidez inskribatu. Agindu horretan espresuki egiaztatzen da fundazioaren helburuak "zilegi eta guztiontzako onuragarri" direla. Helburu horien artean hauek daude: "hezkuntza, prestakuntza eta ikerketaren arloetako eta ezagutza-eremu guztietako egintzak sustatu eta bultzatzea xede duten jarduera eta ekimenak, gizarteak dituen premien bilakaerarekin bat etorriz, irabazteko asmorik gabe. Fundazioaren helburuak dira, halaber: hezkuntza-eta ikerketazentroak sustatu eta kudeatzea, eta hezkuntzako jarduerak garatzeko baliabide materialak gauzatzea. Ikerketa eta prestakuntza."

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 113. artikulua xedatzen dutenarekin bat etorriz, Hernaniko Udalari hirigintzan sortutako gainbalioen partaidetza gisa esleitzen zaion 10.5 sektoreko 1.2 lursaila Udal Lurzoru Ondarean sartuta dagoen lursaila da, eta haren helburu eta araubide juridikoek honelako ondasunentzat ezarritako arauak bete behar dituzte.

Ondoko lege hauen artikulua hauek diotenarekin bat etorriz: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 116, 117 eta 118. artikulua, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109 eta 110. artikulua eta Toki Araubide arloan indarrean dauden xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 79. artikulua.

Xedapen hauek kontuan hartuta: Gernikako Estatutuaren 37. artikulua 3. ataleko d) letra, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua 7. atala (Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremanei buruzkoa) eta maiatzaren 20ko 34/2008 Foru arauaren 18. artikulua 14. atala (Ogasun eta Finantza Departamentuko egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa)

Javier Mutuberria Echeverria jaunak, Fundación Orona-Orona Fundazioaren izenean eta haren ordezkari gisa doako lagapena egiteko eskaera egin du. Fundazioaren Helbidea: Hernaniko (Gipuzkoa) Epele bailara z.g, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuak 2010eko abenduaren 13an emandako agindu bidez inskribatua.

Horiek guztiak kontuan hartuta, gai honen inguruan egindako txosten teknikoa eta juridikoa aztertuta eta osoko bilkurak aldeko 12 botoekin (Euskal Sozialistetak 3 abstentzioekin), hau da, udalbatzako kideen gehiengo absolutuarekin

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2012ko urtarrilaren 16an emandako irizpena.

Hau erabaki da:

- 1.- Hernaniko 10.5 sektorearen (Galarreta) Birzatzitze Egitasmoaren 1.2 zenbakiko lursailaren jabetza, udal honena baita, Fundación Orona-Orona Fundazioari doan lagatzea. Hona hemen lursailaren deskribapena.

Hiri lurreko finka, 10.5 Sektoreko (Galarreta) Zatiko Planaren eta sektorea Urbanizatzeko Jarduketa Programaren ondorioz ateratzen diren lursailen zerrendan "1.2" erreferentzia duena. Azalera: 6.514 m². Mugak:

Iparraldean: Jabari publikoko lursaila, gunee berde eta espazio libre gisa erabiltzekoa.

Hegoaldean: Jabari publikoko lursaila, bide, espaloi eta aparkaleku gisa erabiltzekoa.

Ekialdean: Jabari publikoko lursaila, bide, espaloi eta aparkaleku gisa erabiltzekoa.

Mendebaldean: Lursail pribatua, "1.1.", hirugarren sektorekoa, teknologikoa.

- 2.- Lagapen horri baldintza hau jartzea: doako lagapena gauzatzen denetik hasi eta bost urteko epean eraikin bat eraikiko da bertan, eta eraikin horretan parke teknologikoaren ekintzen osagarri izango diren ikerketa, hezkuntza eta prestakuntza ekintzak garatzeko zentro bat martxan jarriko da, eta baita horrek guztiak eskatzen dituen zerbitzu lagungarriak ere. Horrez gain, lagatako ondasuna hogeita hamar urtez (30) helburu horretarako erabili behar da, bestela ondasuna berriz ere Hernaniko Udalarari itzuliko zaio, lagapendunak egindako hobekuntza guztiekin, lagapendunak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ez duelarik.
- 3.- Erabaki hori jendaurrean ikusgai jartzea, hogeit egunez, horretarako egin beharreko argitalpenak eginda.
- 4.- Jendaurreko informazio epean alegaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko hartutzat ematea.
- 5.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari aipatutako besterentzea egiteko baimena eskatzea, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuaren 79. artikuluan eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109. artikuluan aurreikusitako onorioetarako.

- 6.- Udalbatzako alkate-lehendakariari lagapen hau gauzatzeko egin beharreko agiri publiko nahiz pribatu guztiak formalizatzeko ahalmena ematea, beti ere Fundación Orona-Orona Fundazioak baimendua eta onartua izanez gero, indarrean dagoen legediak onartzen dituen bide eta tituluen bidez Jabegoaren Erregistroan izena emateaz gain.
- 7.- Lagapen honen kostu eta zerga guztiak eta lagapena formalizatzearen ondorioz sortzen direnak, dena dela ere haien izaera, lagapendunaren kontura izango dira, hau da Fundación Orona-Orona Fundazioaren kontura.

8.- 2012. URTEKO AURREKONTUA. - Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko urtarrilaren 24an emandako irizpena.

Alkate-lehendakariak esan du lehenik turismoko partida bati dagokionez batzordeak irizpena eman ondoren aurkeztu duen zuzenketa bozkatuko dela eta, onartzen bada, bozkatuko den aurrekontuan sartuta geratuko dela.

Zuzenketaren bozketa egin delarik, hau da lortutako emaitza:

- * Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- * Kontrako botoak: 4 (3 Euskal Sozialistak, 1 H1!).
- * Abstentzioak: 2 (EAJ/PNV).

ZUZENKETA ONARTU DA ETA AURREKONTUAN SARTU DA.

Alkate jaunak (Bildu) hau esan du:

Aurrekontuaren balorazioa

Hasierako egoera:

2012 urteko aurrekontua egiterakoan aurkitu dugun egoera ondokoa izan da.

Egoera orokorrari dagokionez esan behar dugu Udalaren zorpetze maila nahiko ona dela. Udalak 2.620.000 €-ko maileguak dauzka amortizatzeko. 2012 urterako aurreikusi dugun zorpetzea urtean amortizatuko diren maileguen parekoa izan da.

Bestalde, 2009 urteko Fondo Foralaren desbideraketaren ondorioz 2012 eta 2013 urtean bueltatzeko 1,767.175 € dauzkagu.

Aurrekontua egiterakoan daukagun zalantzetako bat 2011ko Fondo Foralaren itxiera da. Nabarmena da Aldundian Ogasunaren ardura zuen H1 alderdiak eta Aldundiko buru zen EAJ alderdiak 2011 urteko aurreikuspen kaxkarrak egin zituztela, ziurrenik hauteskunde urtea izateak lagunduta. Hau PSEren babesarekin onartu zen.

Diru Sarrerak:

2012 urteko sarreretan Fondo Forala eta dirulaguntzetan 2011urtearekiko jaitziera nabarmenak aurreikusten ditugu. PSE alderdiak gobernatzeko duen Ejtik dirulaguntzetan murrizketak edukitzen ari

gera Udal Euskaltegia eta Musika Eskola bezalako zerbitzuen finantzaketarako. 2012 Fondo Foralari dagokionez Finantzen Euskal Kontseiluak egindako aurreikuspenetan oinarritua dago gure aurrekontuan egin dugun diru sarrera aurreikuspena, 2011 urtekoa baino 275.000 € inguru txikiagoa.

Zerga zuzenei dagokionez %3ko eguneraketa bat aplikatu dugu orokorrean eta potentzia fiskal handiko ibilgailuen kasuan %10eko igoerak arte aplikatu ditugu gradualki.

Tasei dagokienez %3ko igoera aplikatu da ia orokorrean.

Urtean aurreikusitako zorpetzea amortizatuko diren maileguen kopuru berdina izan da.

Gastuak:

Gastu orokorretan lerroz lerro kontzeptuz kontzeptu azterketa bat egiten saiatu gera. Gure lehentasunak Gizarte Zerbitzu eta Politika Sozialean, Hezkuntza eta Enpleguan eta Euskaran diru partidak mantentzea izan da. Aipamen berezia merezi du gure herritar asko pairatzen ari diren langabezi egoerari irtenbideak bilatzen laguntzeko Udal Gobernu enplegua bilatzen laguntzeko Orientazio zerbitzuaren alde egiten duen apustuak. Beste arloetan zenbait doikuntza egin ditugu beti ere Udal baliabideak era eraginkorrago batean erabiliaz herritarrei Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko helburuarekin. Herritarrengandik hurbilago egonaz eta parte hartze dinamikak sortuaz herrian eta auzoetan.

Hondakin bilketari dagokionez atez atekoarekin gure apustua argi utzi nahi dugu, hondakin bilketarako sistema eraginkorrena delako beste sistema batzuen antzeko kosteekin eta Ingurugiroarekin dugun konpromisoarekin bat eginez

Udalak Ongintza Patronatuari egingo dion aportazioaren hazkundera aurreikusten da langileen soldatak eguneratzearen ondorioz. Aldi berean Aldundiarekin harremanetan gaude berari dagozkien konpententziak bere gain har ditzan.

Pertsonal gastuetan langileen soldatak KPIarekin eguneratzea aurreikusi dugu. Uste dugu Madrildik enplegu publikoarekiko eraso jasaten ari garen honetan inoiz baino argiagoa izan behar dugula Enplegu Publikoarekiko gure apustuak, eta garai gogor hauetan ere pertsonen eta familien eros ahalmena mantentzearen aldeko hautua egin behar dugula. Argi utzi nahi dugu Kalitatezko Zerbitzu Publiko baten aldeko gure apustua, eta Udal langileak dira zerbitzu horren kalitatea bermatzeko gure baliabidea. Pertsonal gastuetan 2011ko exekuzioarekiko dagoen igoera alde batetik honen ondorioz da, eta bestetik hezkuntza eta enpleguan aurreikusi den esfortzu handiagoa, bi ikastaro berri, eta baita Udaltzaingoaren 6 plazen oposaketen ondorioz sortzen den formazio epearekin erlazionatua ere.

Aurreikusten den garai gogorretan inbertsioetarako dirua gaur egungo azpiegiturak mantentzera bideratu dugu nagusiki. Zatiirik garrantzitsuena kiroldetako estalki bat aldatzeko bideratuko dugu eta aurrekontuetan islada dute Biteriko zinemako proiektorea aldatzeko beharrak eta liburutegiko funts bibliografikoa berritzeko diru kopuruak.

Hirigintzako inbertsioak hurrengo urteetan gauzatu beharko diren aktuzioen proiektuak egiteko bideratu ditugu eta behar sozialentzat Ongintzako bost etxebizitza hornitzeko kapital transferentzia bat ere jaso dugu gure egitasmoan.

Aipamen berezia merezi du 2012 urtean aurreneko aldiz Ereñozuko Tokiko Erakunde Txikiak bere aurrekontu propioa kudeatu ahal izango duenak, ihaz hasi zuen bidean pauso bat gehiago emanaz.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

EAJ-PNVko kideek udal aurrekontuaren kontrako botoa emango dugu, eta osoko zuzenketa hau zergatik aurkeztu dugun azalduko dugu:

1.- Aurkeztu zaigun aurrekontuan berriz ere hondakinen kudeaketarako partidak 1.533.000 €-ko ordainketa jasotzen du (2011n baino 129.000 € gehiago) Hernani, Usurbil eta Oiartzuneko udalek osatutako Garbitania elkartearentzako. Horrez gain, atez atekoarentzat 100.000 €-ko inbertsioa planteatzen da.

* Eskatzen dugu hondakinen kudeaketa 5 edo 6 edukiontzien sistema erabiliz egin dadila (6. edukiontzia olio jasotzeko). 400.000 € inguru aurreztuko genituzke.

2.- Gastu juridikoen partida 50.000 €-koa dela ikusi dugu. Badirudi gobernu talde honek uste duela 2012an zehar auzitegietan maiz ibiliko garela eta horregatik mantendu behar dela partida hori.

* Eskatzen dugu partida hori sinbolikoki mantendu dadila irekia, auzitegietara joan behar izatea gertatuz gero.

3.- Gobernu taldearen aholkularien eta izendapen libreko langileen partidak bere horretan jarraitzen dute.

* Eskatzen dugu partida horiek desagertu daitezela eta bakarrik funtzionarioekin lan egin dadila.

4.- Gure ustez ez da unerik egokiena 188.000 € azterlan, egitasmo eta lan teknikoetan gastatzeko, udalean gauzatu gabeko azterlan eta egitasmo pila izanik.

* Eskatzen dugu azterlan, proiektu eta lan teknikoetarako kontu-sailak diru kopuru sinbolikoekin irekita mantentzea, beharrez garrantzitsuren bat dela eta baten bat egin behar izatea gertatuz gero.

5.- Gure ustez lankidetzaren arloan partida bat prestatu beharko litzateke munduan zehar zeregin honetan aritzen diren hernaniarrei begira.

* Eskatzen dugu lankidetzaren arlorako dagoen diruaren %25 munduan zehar proiektuak lantzen ari diren hernaniarrei bideratzeko gorde dadila eta emateko modua zuzeneko izan dadila. Sistema hau euskara, kultura eta immigrazio arloetan erabiltzen da.

6.- Exijitzen dugu gobernu taldeak egindako soldata igoeren proposamena alda dadila, funtzionario talde bat diskriminatzen duelako eta 1. eta 2. mailako langileak sortzen dituelako, eta funtzionario guztien lan eskubideak errespetatu daitezela. Ekiparazio honek 4.900 € suposatzen ditu.

Gure ustez, langile hauetako hirurekin egin nahi den bereizkeria aurreko legegintzalditik dator. Aurreko gobernu taldea saiatu zen, Alkatetzak emandako dekretu bidez, eta epaile batek atzera egina-razion, baina orain are eta mingarriagoa da. Behatzez kontratatutako langileen, aholkularien eta aldi baterako langileen izendapenei buruzko atalak aztertzen baditugu, atal horiek 94.000 €-tik gorako kostua dutela ikus dezakegu.

Lotsagarria da funtzionarioei dagozkien soldatak ez ordaintzea eta behatzez kontratatutako langileetan sekulako dirutza gastatzea, batez ere haiek egin behar duten lana funtzionarioek egin badezake.

Bukatzeko esan nahi dugu gustu txarreko txantxa iruditzen zaigula soldata igoerako proposamen hau egitea eta hurrengo puntuan Rajoyk planteatutako sektore publikoaren erreforma kritikatzeko duen mozio bat aurkeztea, lan baldintzen beheranzko erreforma egiten ari zireten lehenengoak Bildukoak zaretelarik. Horri demagogia deitzen zaio.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) hau esan du:

Lehenik eta behin esan beharra daukagu, udal gobernuak ez dela gai izan, gehiengoa bere esku izanda ere, 2012ko aurrekontu egitasmoa epearen barruan aurkezteko, eta aurrekontua aztertu eta onartzeko legezko epe guztiak hautsi dituela.

Esan beharra daukat Bilduk udal politikagintza borondatezkoa izan beharko lukeela lau haizetara zabaldu arren, gobernu taldean dauzkan liberazioek bestela adierazten dutela. Gainera, zinegotzi guztiek udalean dedikazio eskusiboa izango balute bezala jokatzeko du, aurrekontua aztertzeko epea udaleko hainbat teknikari oporretan daudela jarriz, horrek epearen zati batean aurrekontuen azterketa eta zuzenketa-eskeak lantzeko gure lana erraztuko dizkiguten datuak lortzeko aukerarik gabe utzi digularik.

Hauek dira legegintzaldi honetako lehen aurrekontuak, Alternatiba, EA eta ezker abertzaleak osaturiko Bilduko gobernu talde honek prestatutako lehen aurrekontuak. Ezker abertzalea izan delarik azken lau urteotan udala gobernatu duena eta, beraz, aurrekontuen arduradun.

Azken hori azpimarratu nahi dugu, izan ere, aurrekontuak dira Hernaniko herritarrentzat beharrezko jotzen dena egiteko edo ez egiteko aukera ematen diguten tresna.

Hori nabarmendu nahi dugu, hain zuzen ere euskal sozialistok ordenantza fiskalen eztabaidan esan genuen moduan, aurkeztutako aurrekontu hauek ez dakartelako inolako haize berririk, egiten duten bakararra da aurrekoei jarraipena eman. Hain txikiak dira aldeak, ez dute krisi ekonomikoak sortutako egoera hobetzen laguntzen. Azpimarratu behar da alderik handiena Udalbiltzari egingo zaion ekarpenean dagoela, 15.000 euro. Lehen ez zegoen horrelakorik eta, jarrera hori ez doa krisi ekonomikoari irtenbideak emateko bidetik.

Bestalde, alkateak memorian esan du gizarte zerbitzuetan ez duela inolako murrizketarik planteatu.

Kontuan hartzen baditugu 2011ko aurrekontu egitasmoan planteatutako ekarpen arrunta eta 2012an planteatutakoa, aurten ekarpena handitu egingo litzateke. Baina ekarpenen guztizkoari erreparatu badiogu, 3.000 eurotik gora murrizten dela ikusten da.

Eta, are gehiago, ezker abertzaleko gobernuak iaz egin zuenari erreparatu badiogu, ekarpen hori bera 120.829 euro murriztu baitzuen, Foru Aldunditik ekarpen berezia jaso zuelako, hau ondorioztatzen da, alegia, egoera ekonomikoaren ondorioz beren beharretara iritsi ahal izateko gizarte zerbitzuetara jotzen duten herritarren kopurua handitzen ari den honetan, gizarte zerbitzu hobetzaileen aldeko apustua egin ordez, ekarpena mantentzaileen aldeko apustua egiten duela, kontuan hartu gabe eskaera handitu egin dela. Eta, Diputazioak egoeratik salbatuko dion ekarpena baten zain geratzen da, gizarte zerbitzuetarako proposatu duten kopuruaren zati bat berriz ere beste zerbitzuetarako erabili ahal izateko.

Sozialistontzat berebiziko garrantzia duen beste gai bat badugu. Ezker abertzalea lau urtez Diputazioarekin elkarriketatzen aritu da Foru Aldundiak zaharren egoitzako eskumenak bere gain har ditzan. Baina orain badirudi orain arte hitz egindako guztiak ez duela ezertarako balio eta elkarriketak zerotik abiatuta hasi dituzte berriz. Horrek esan nahi du beste urte betez Hernaniko

Udalak bere gain hartu beharko duela Zaharren Egoitzako finantzaketarako milioi eurotik gorako kostua duen gestioa.

Gure herritarren baldintzak lana bilatzeko orduan hobetzeari dagokionez, udal gobernu honek, "gauzak egiteko modu berriak" esapidea maiz erabili arren, udal honetan duela 20 urte baino gehiagotik hona ematen diren ikastaro berak ematen ditu oraindik ere. Adibide gisa autoaren mekanika, sukaldaritza eta gozogintza ditugu. Hori al da proposatzen diguten berrikuntza?

Sozialistok argi daukagu gobernu lokalari interesatzen zaion gauza bakarra aurrekontuak koadratzea eta jardueraren bat mantentzea dela, dena delakoa ere, beraiek enpleguaren gaian zerbait egiten dutela esan ahal izateko.

Agintean egon diren hilabete hauetan, eta azken lau urteetako gobernu aldian, ez dira ikastaro hauen benetako emaitza zein izan den ikusteaz arduratu, ea Hernaniko herritarren, gazteen, emakumeen eta abarren eskariari erantzuten ote zioten.

Ikastaro hauetakoren bat egin duten pertsona kopurua zenbatzen badugu, denek ikasitakoarekin zerikusia duen zerbaitean lan egiteko aukera izan zezaten, eskualde honetan taberna baino kotxe tailer eta gozotegi gehiago egon beharko luke.

Sozialistok azken urte hauetan enplegu-bide berrietarako ekimenak aurrera atera zitezten saiatu gara, udalarentzat inolako kosturik suposatuko ez zutenak bere garaian, baina aurreko udal gobernuak besterik gabe baztertu egin zituen. Ekimen horiek sistematikoki baztertzen ziren Hernaniko sozialistek aurkeztuak izate hutsarengatik.

Planteamenduak gaur egun ere indarrean jarraitzen du eta udalaren zerbitzu teknikoaren esku dago. Interes falta tarteko, aurtengoa ere urte galdua izango da gaur egungo beharrekin bat datorren prestakuntza emateari dagokionez, beste garai batzuetako beharrak ahaztu eta gaur egungo errealtateari erreparatu behar zaio.

Alkateak bere txostenean azpimarratzen dituen puntuetatik, hasiera batean oso interesgarriak ziruditenak, azkenean benetan geratzen dena da aurreko aurrekontuetan zegoena mantendu egiten dela, herritarren prestakuntza behar berriak asetzera etorriko den inolako norabide aldaketarik ikusten ez delarik.

Eta bai bitxia, aurrekontu egitasmoan kontraesan larria ikusten dugu. Krisi egoera honetan, gastuari eusteko beharra dagoen garai honetan ikusten dugu hondakinen kudeaketako programan gastua ez mantentzeaz gain, kontrolik eza nabariaren erakusgarri, atez atekoaren hainbat gasturako 100.000 euroko partida agertzen dela 2012. urterako. Hori, bilketa zerbitzuaz arduratzen den Garbitania enpresa publikoak urtean milioi eta erdi euroko kopurua dagoeneko gainditzen duelarik. Hernaniar guztiek izan beharko lukete datu horren berri.

Baina bada jakin beharreko datu gehiago ere. 2011ko hainbat gasturen partidari erreparatzen badiogu ikusiko dugu, enpresa horri udalaren material guztia utzi bazaio ere eta enpresa horrek udalari bilketa zerbitzuarengatik fakturatzen dion arren, udala ari dela zerbitzuaren esleipenduna den enpresari legezkiokkeen gastuak ordaintzen. Hona hemen zenbait adibide: bilketa kamioi baten alokairua, gasolioa, kamioiak garbitzeko gastuak, etab. udalak zuzenean ordaintzen ditu enpresa horrek ordaindu beharrean, hura baita bilketa egiten duena eta horretarako baliabideak jarri behar dituen.

Hernaniarrentzat garrantzia handikoa dugun gai honi buruzkoak bukatzeko esango dut duela denbora asko sozialistek Garbitaniari buruzko dokumentazio ekonomikoa eskatu genuela, udalbatzak eduki

beharko lukeena baina oraindik eman ez diguna. Horrek Hernanin enpresa horren egoera ekonomikoaren inguruko ilunzaletasunari buruz, atez ateko hondakin bilketaren kudeaketak benetan dituen kostuei buruz eta, beste udal zerbitzu batzuetarako bideratutako diruaren kaltetan, funtsen etengabeko desbideratzeari buruz zabaldua dagoen iritzia areagotzeko bide ematen du.

Osoko bilkura honetan udal gobernuari eta alkateari eskatzen diegu berriz ere jakinaraz diezazkigutela atez ateko bilketa zerbitzuaren benetako gastuak zenbatekoak izan diren eta zerbitzua martxan jarri zenez geroztik gastu hauek izan duten bilakaera zenbatekoa izan den. Eta horrez gain, orduan eskatutako informazioa ere bai.

Gure ustez lehen esandakoa aski baino gehiago ere bada Hernaniko Udaleko Euskal Sozialisten Udal Taldeak aurrekontu honen kontrako botoa emateko eta udal gobernuari alda dezala eskatzeko.

Arratibel jaunak (H1!) hau esan du:

Egindako bi osoko zuzenketa eskeen alde gaude (Euskal Sozialistak eta EAJ) eta haietan esandakoa gure egiten dugu.

Aurrekontu hau garaiz kanpo geratu da onartu baino lehenago ere, ez delako kontuan hartu Foru Aldundiari itzuli beharreko diru kopurua. Laster ikusiko ditugu lehen kreditu aldaketak, aurrekontu honek etorkizun eskasa baitu.

Azkenik, Ogasun eta Ondare batzordeak-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko urtarrilaren 24an emandako irizpenaren bozketa egin du alkate-lehendakariak, onartutako zuzenketa sartzearen ondorioz egin beharreko aldaketarekin.

Aldeko botoak: 9 (Bildu).

Kontrako botoak: 6 (3 Euskal Sozialistak, 2 EAJ/PNV, 1 H1!)

Abstentzioak: bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

"Alkateak Hernaniko Udalaren 2012. urterako Aurrekontuaren Egitasmoa aurkeztu zuen 2011ko abenduaren 29ko Ogasun eta Ondare batzordea-Kontuetarako batzorde berezian

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko Auzo Batzarrak 2012ko urtarrilaren 16an hartutako erabakia ikusita

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua"ren Zuzendaritza batzordeak 2012ko urtarrilaren 18n hartutako erabakia ikusita,

Kontuan hartuta Kontu-hartzaileak egindako txostena.

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordeak-Kontuetarako Batzorde Bereziak 2012ko urtarrilaren 24ko irizpena.

Kontuan hartuta eztabaidaren hasiera onartutako mozioa.

Hau erabaki da:

1.- Hernaniko Udalaren 2012. urterako Aurrekontu Orokorra onartzea, kapitulukako laburpen honen arabera:

UDAL SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU BATERATUA

2012ko Aurrekontua

1.- SARREREN AURREKONTU BATERATUA

| KAP | IZENA | UDALA | ONGINTZA | E.L.M.EREÑOTZU | BATERATUTAKO GUZTIRA |
|-----|--|------------|----------------------------|------------------------|----------------------|
| 1 | ZUZENEKO ZERGAK | 5.574.735 | | | 5.574.735 |
| 2 | ZEHARKAKO ZERGAK | 1.201.234 | | | 1.201.234 |
| 3 | TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK | 5.469.399 | 1.688.799 | | 7.158.198 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 11.377.732 | 5.973.067 (- 2.387.236) | 267.219 (- 267.219) | 14.963.346 |
| 5 | ONDARE SARRERAK | 20.421 | 1.027 | | 21.448 |
| 6 | INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK | 7.000 | | | 7.000 |
| 7 | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 8.819 | 81.750 (- 81.750) | 42.167 (- 42.167) | 8.819 |
| 8 | AKTIBO FINANTZARIOAK | 7 | 1 | | 8 |
| 9 | PASIBO FINANTZARIOAK | 560.000 | | | 560.000 |
| | G U Z T I R A | 24.219.347 | 7.744.644 (- 2.468.986) | 309.386 (- 309.386) | 29.494.788 |

2.- GASTUEN AURREKONTU BATERATUA: SAILKAPEN EKONOMIKOA

| KAP | IZENA | UDALA | ONGINTZA | E.L.M.EREÑOTZU | BATERATUTAKO GUZTIRA |
|-----|---|--|-----------|----------------|----------------------|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 7.959.107 | 3.941.829 | 50.018 | 11.950.954 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 9.987.436 | 3.525.578 | 217.201 | 13.721.215 |
| 3 | FINANTZA GASTUAK | 59.703 | | | 59.703 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 4.034.563 (-2.387.236) (-267.219) | 195.486 | | 1.575.594 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 608.356 | 81.750 | 42.167 | 732.273 |
| 7 | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 123.917 (-81.750) (-42.167) | | | |
| 8 | FINANTZA AKTIBOAK | 7 | 1 | | 8 |
| 9 | FINANTZA PASIBOAK | 1.455.041 | | | 1.455.041 |
| | G U Z T I R A | 24.219.347 (-2.778.587) | 7.744.644 | 309.386 | 29.494.788 |

2.- 2012ko Aurrekontua Gauzatzeko Araua onartzea.

3.- 2012ko Diru-laguntzak emateko Araudia onartzea

4.- Hernaniko Udalaren 2012. urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.

5.- "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua"ren 2012. urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.

6.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren 2012 urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea

7.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost lanegunez, nahi dutenek azter dezaten eta Udal Batzarrari erreklamazioak aurkez diezazkioten. Aipatutako epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrekontua behin betiko onetsizat joko da; bestela, Udal Batzarrak hilabeteko epea izango du haiek ebazteko.

9.- IARTZAGAINEN TUNELAREN MOZIOA. - Alkate-lehendakariak esan du duela gutxi Larraitz Ugarte Azpiegituretarako diputatuaren deia jaso dutela eta hark esan diela baztertu egin dituztela oinarriko egitasmoarekiko aldaketak. Beraz, kendu egin dute aurkeztuta zeukaten mozioa.

10.- SEKTORE PUBLIKOAREN ERREFORMARI BURUZKO MOZIOA. - Lujanbio andreak (Bildu) mozio hau irakurri du:

“Duela egun batzuk espainiar gobernuaren arduradun zenbaiten ahotik, sektore publikoan gauzatuko den politikaren ildo nagusiak entzun genituen.

Horrela, sektore publikoaren erreformara bideratutako neurri zenbaiten artean, zein baino zein murriztaileagoak, Berrezarpen Tasaren izoztea iragarri zen. Horrek, udalean jubilatuko den funtzionario ororen plazarik ez betetzea inposatu nahi du. Honi Enplegu Publikoaren Eskaintza izoztuta dagoela gehitzen badiogu, ondorioak oso larriak izan daitezke.

Aurrezpen neurri bezala zabaldu denak, lehen golpean ikusi daitezkeenak baino eragin askoz ere garrantzitsuagoak izango ditu. Lehenik eta behin, epe erdira begira eta udal langileak jubilatzen doazen heinean, udalek eman beharreko zerbitzuak emateko adina langile ez dutela izango esan nahi du. Ondorioz, zerbitzuen kalitatearen okertze bat eratorriko da udaletara, baita gure honetara ere. Era berean, langile publikoen lan baldintzen okertzea suposatuko du.

Aurretik adierazitakoa bezalako neurrien bigarren ondorio nagusia, zerbitzu publikoak pribatizatu behar direla defendatzen dutenei ateak irekitzea da. Hau da, zerbitzu publikoen liberalizazio osoa defendatzen dutenei mesede egitea. Honen guztiaren ondorio zuzena, urte luzeen ondorioz guztiontzat ziren zerbitzuak, dirua duten gutxi batzuk soilik izatea da. Ondorioz, eta azaldutakoaren bidetik, Hernaniko Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkezten du eztabaidatu eta onartu dadin:

- 1.- Udal honek, Espainiako Gobernuaren presi-dente den Mariano Rajoyk iragarritako neurriak errefusatzen ditu. Besteak beste, Enplegu Eskaintza Publikoaren suntsiketa eta funtzio publikoan berrezarpenaren debekuaz, udal honek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea kaltetzen duelako.
- 2.- Udal honek, geroz eta premiazkoagoa den Ongizate Estatuaren defentsan kontsentsua mantentzea eskatzen du; udalek, herritarrengandik gertueneko erakundeak izanik, eman behar dituzten zerbitzuen alde egiteko.
- 3.- Madril enartutako neurri hauen larritasunaren eta ondorioen aurrean, Bilduk, euskal gizarteari dei egiten dio, mobilizatu eta kalitatezko eta herritarrengandik gertueneko sistema publikoaren aldeko konpromisoa adierazi dezan.”

MOZIOA ONARTU EGIN DA (ARRATIBEL JAUNA, H1!, ABSTENITU EGIN DA.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

A. Amonarraiz (EAJ/PNV): eskatzen dut Diputazioari egin beharreko ordainketa atzeratzeko gaiaren inguruan udal taldeak izan zuen jarrera berrazter dezala, Bilduk gobernatzen dituen beste zenbait udaletan egiten ari diren moduan.

Alkate jaunak erantzun dio Diputazioak alkate guztiak deitu dituela gai horri buruzko bilera bat egiteko eta bileraren ondorioaren hitz egingo dutela horri buruz.

B.- Sr. Arratibel (H1!): nire ustez ekaina-edo izango zen hainbat batzorde informatzaile eratzea onartu zenean, horien artean "Partaidetza" eta "Giza Eskubideak". Oraindik ere ez dira eratu eta Udal honetan ez zen orain arte horrelakorik sekula gertatu. Zergatik ez dira sortu?

Alkateak erantzun dio bi batzorde horiek eratze lanetan ari direla. Giza Eskubideen batzordeari dagokionez, zehazten ari dira nola, zer eta zertarako eta, Partaidetzakoari dagokionez, herritarren ordezkari batek parte hartzea nahi dugu eta orain auzo guztiak bisitatzen ari gara. Nahiz eta beranduago izan, jarriko dira martxan. Nolanahi ere, gairen bat baldin badago aztertu nahi duzuen edo presazkoa dela jotzen duzuen, esan eta prozesua bizkortuko dugu.

Arratibel jaunak esan du 7 hilabete eta gero ez dutela azaldu eratze prozesuan daudenik.

Lujanbio andreak berretsi du (Bildu) eratze prozesuan daudela eta, "partaidetza" hitzak berak dioen moduan, herritarrekin hizketan ari direla. Dena den Arratibel jaunak batzorde hauek direla eta azaldu duen interesak harritzen du, aurreko legegintzaldian bere taldea batzorde horretan izan zuen asistentzia ikusita.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) esan du batzordeak informatzaileak direla eta interesagarria dela eratzea partaidetza arloan egiten ari direnaren berri izateko.

Jasota utzi nahi du zenbait batzorde edo osoko bilkura gobernu taldeari ondo datorkion orduetan egiten direla, bozeramaileei ordu hori ondo ote datorkien galdetu ere gabe, eta, ondorioz batzuetan ezin dira bileretara agertu, bakarrik gobernu taldearen eginbeharrak hartzen baitira kontuan.

Horren guztiaren ondotik bilera eten egin da, herritar batek zerbait esan nahi zuela-eta hari hitza emateko. Horri buruz aritu dira pixka batean hizketan eta 19,55 orduetan alkateak bilera amaitutzat eman du eta nik, idazkaria naizenez, horren fede eman dut.